




EUSKARA
SUSTATZEKO
EKINTZA
PLANA

2018 - 2022: ERRONKA ETA ZEREGIN NAGUSIAK

- 
2. SARRERA
 3. ZER DA ESEP
 4. ZERTARAKO
 5. NOLAKOA
 6. XEDE NAGUSIA
 7. LAN ESPARRUAK
 8. FAMILIA TRANSMISIOA
 9. IRAKASKUNTZA
 10. EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA
 11. AISIA ETA KIROLA
 12. UDAL ADMINISTRAZIOA
 13. ARLO SOZIO-EKONOMIKOA
 14. KULTURA ETA ONDAREA
 15. SENTSIBILIZAZIOA-MOTIBAZIOA
 16. EUSKARA SAILA

Euskara gure herriaren berezko hizkuntza eta, gaztelaniarekin batera, ofiziala da Euskal Autonomia Erkidego osoan. Hala, **euskal herritar orok du eskubidea euskaraz jakiteko eta edozein esparrutan euskara erabiltzeko**, beraz, herri administrazioen egitekoa da hori bermatzea.

Hori dela eta, Elgoibarko Udalaren **helburu nagusietako bat da esparru guztietan euskararen normalizazioa lortzea**. Horretarako, herritar eta eragile guztien inplikazioa lortu nahi da euskararen normalizazioaren bidea elkarrekin egiteko.

Zer da ESEP

ESEPeK, Euskara Sustatzeko Ekintza Planak, Elgoibarko Udalak datozen urteetarako (2018 - 2022) herrian EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ezarri dituen helburu nagusiak eta horiek bideratzeko neurri eta ekintzak, jasotzen ditu, bai Udalak antolaturikoak baita diruz lagundutakoak ere.

HISTORIA

2003

Elgoibarko Udalak EBPN (Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia) 2003 - 2007 plana onartu zuen.

2007

EBPN 2007 - 2013 plan estrategikoa onartu zuen Udalak.

2014

Udalak ESEP 2014 - 2017 plan estrategikoa onartu zuen.

ELKARLANEAN

Eusko Jaurlaritzak proposatutako ereduan, Elgoibarko Udalak idatzitako plana da.

Elgoibarrerako egokien diren jardunbideak jaso dira bertan, herriko gizarte eragileen ekarpenak kontuan izanda.

Adostasunean eta lankidetzan oinarritzen den plana da, herria euskalduntzea erronka kolektiboa baita.

Zertarako

EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO, hau da, euskaraz bizi nahi duen herritarrari horretarako aukerak bermatzeko.

Elgoibarko herri bizitzan, funtzio eta gune desberdinetan euskaraz hitz egiteko aukerak handitzeko, bereziki, kaleko erabileran eragina duten esparruetan (aisia, kultura, merkataritza, ostalaritza...), eta haur eta gazteen eremuan.

NOLA GAUDE

Herritarren %69 euskaraz komunikatzeko gai da; eta ulertzeko gai, berriz, %77.

34 urtetik beherakoen %81 euskalduna da.

Irakaskuntzan, ia erabat ikasten da D ereduan. Lanbide Heziketan euskarazko ereduak ere gorakada izan du.

Kaleko erabilera %37koa da, eta etxekoa %47koa. Haurren kirol entrenamenduetan erabilera %56,6koa da, eta eskola kirolean, hain zuzen, %76,6koa.

HIZKUNTZA OHITURAK

Hizkuntza ohiturak aldatzeko ekimenak bideratu nahi dira.

AHOZKO ERABILERA

Ahozkoari lehentasuna emango zaio, eremu formal zein informalean.

GUNE EUSKALDUNAK

Ohiko hizkuntza euskara izango den guneak sortzea da xedea; eta ditugun guneak aberastea.

Nolakoa

Elgoibarko herri bizitzan, gune ezberdinetan eta funtzio ezberdinetan, euskaraz aritzeko aukerak handitu nahi dira. KALEA ETA JENDARTEA izango dira jokalekuak.

Bereziki, esparru hauetan: aisian, kulturean, merkataritzan eta ostalaritzan, kaleko erabileran eragina dutelako. Eta HAURREN ETA GAZTEEN artean, non euskararen erabilera bermatu egin nahi baita.

GUZTIONA

Guztion ondarea da euskara, eta herritarren bizikidetzeta eta kohesioa sendotzen ari gara euskara biziberritzearekin batera.

Gizarte osoari dagokio euskara erabiltzeko aukerak eta guneak bermatzea, eta Udalak lagundu egin behar du zeregin horretan.

IREKIA

Irekia da, eta sortzen diren beharren arabera, moldagarria. Aurrerantzean ere ekarpenak egin ahal izango zaizkio, urtez urte.

ADOSTUA

Hizkuntzen arteko aukera berdintasunerako ezinbestekoa da adostasuna eta herritarren atxikimendua izatea.

EGINGARRIA

Hizkuntza politika eraginkorra izango bada, gizartearen errealitatea hartu behar da aintzat, eta helburu egingarriak ezarri.

Xede nagusia

NERABE-GAZTEAK eta eurekin harremana duten helduak (guraso, irakasle, hezitzaile, entrenatzaile...) dira lehentasun.

Euskararen hazkundera haien eskutik etorriko delako.

Euskaldunen proportzio handiena gazteen artean dagoelako.

Euskaraz hazi eta hezitako belaunaldiak izango direlako.

Etorkizuneko gizartearen gidari eta liderrak gazteen artean daudelako.



ZEIN EREMUTAN

Haur eta nerabeen artean **“etxea, eskola eta eskolaz kanpoko jarduerak”** lehentasunezko eremuak dira hizkuntzaren ikuspegitik.

Eremu horiek dira, komunikabide eta kultura-kontsumoarekin batera, haur eta nerabe-gazteen hizkuntza erabileran eragin handiena dutenak.

EUSKARAZ GOZATZEKO

Euskara nerabe-gazteen ohituretara, euren gustuko eremuetara eta teknologia berrietara eraman behar dugu. Berebiziko garrantzia du euskara bizipen positiboekin lotzeak.

HELDUEKIN ERE BAI

Hala ere, ezin ditugu helduak ahaztu. Inportantea da haur eta gazteekin harreman zuzena duten helduengan eragitea.

Lan esparruak


Hauek dira 2018tik 2022ra ESEPen bidez landuko ditugun esparruak, eta bakoitzerako helburuak eta estrategiak:



**FAMILIA
TRANSMISIOA**



IRAKASKUNTZA



**EUSKALDUNTZEA
ETA
ALFABETATZEA**



**ARLO
SOZIO-EKONOMIKOA**



**KULTURA
ETA ONDAREA**



AISIA ETA KIROLA



**UDAL
ADMINISTRAZIOA**



**SENTSIBILIZAZIOA
ETA MOTIBAZIOA**

Familia transmisioa

Hizkuntza ikasteko biderik naturalena eta emankorra familia da. Gurasoen bidez, euskara hobeto eta ugariago transmitituko da. Horregatik, guraso euskaldunek transmisioaren garrantziaz kontzientzia hartzea nahi dugu eta eredu bihurtzea.



FAMILIA GIROAN

Familia giroan euskarazko jarduerekin gozatzeko egoerak eta ekintzak sustatu nahi dira.

GURASO BERRIAK

Guraso berriak sentsibilizatu eta motibatu nahi dira; haien eskura jarri euskarari eta euskal kulturari lotutako produktuak.

IKASTAROAK

Euskaraz ez dakiten gurasoak ikastera bultzatu nahi dira; eurentzako ikastaroak antolatu eta dirulaguntzak eskaini.

Irakaskuntza

Eskolako esparruan euskara erabiltzea sustatu nahi dugu. Alde batetik, euskara prestigiatzea ikasleen artean, eta bestalde, komunikazioa lantzeko ekimenen bidez ikasleen euskara erabilera handitzea.

MOTIBAZIOA KOMUNIKAZIOA

Nerabe eta gazteen motibazioan eragiteko eta komunikazioa (ahoz eta idatziz) hobetzeko ekintzak, lehiaketak... antolatu.

ETORRI BERRIAK

Ikasle etorri berrientzako saio bereziak antolatu euskarara hurbiltzeko.

ERREFERENTEAK

Gazteen erreferente direnekin saioak antolatu, eta euskara balio moderno eta positiboekin lotu.

ESKOLAN

Ikasle, irakasle eta gurasoekin norabide berean aritzeko ahalegina egin.

LANBIDE HEZIKETA

Lanbide Heziketan euskarazko eskaintza indartu eta praktikan euskara sustatu.



Euskalduntzea Alfabetatzea

Euskararen berreskurapenean, irakaskuntzarekin batera, euskalduntze-alfabetatzea izan da ekinbiderik garrantzitsuena. Erraztasunak eta laguntzak eman nahi dira euskara ikasteko eta ikasitakoa praktikan jartzeko.



ETORRI BERRIAK

Etorri berri helduentzako ikastaro bereziak antolatu.

SEKTOREKA

Eskaintza berriak aztertu: sektorekako ikastaroak...

GELATIK KANPO

Euskara erabiltzera jauzia egiten lagundu ikasleei eta euskaldun berriei.

DIRULAGUNTZAK

Euskara ikasteko sentsibilizazio estrategiei eutsi: dirulaguntzak, bekak eta abar.

Aisia eta kirola

Haur, nerabe eta gazteen eskolaz kanpoko erabileran eragin nahi da. Ezin ahaztu ezinbestekoa dela administrazioaren eta herri ekimenaren arteko elkarlana, haur eta nerabeentzat aisia hezitzaileko eskaintza osatzeko, eta herrian, euskara eta euskal kultura sustatzeko.



KIROLEAN

Kirol jarduera eta entrenamenduetan, euskararen presentzia eta erabilera sendotu.

ENTRENATZAILEAK ETA HEZITZAILEAK

Entrenatzaileak eta hezitzaileak euskaraz aritzeko trebatze saioak antolatu.

AISIA

Aisialdiko jardueretan, euskaraz aritzeko, gazte erreferenteen berri eman, eta haur eta gazteei zuzendutako ikuskizunak euskaraz antolatu.

NERABE-GAZTEEKIN ELKARLANA

Ekintzak antolatu, non eurak protagonista izango diren.

Udal administrazioa

Euskararen normalizazioan eragile izateaz gain, eredu izan behar du Udalak. Horregatik, Udalaren erronka da zerbitzuetan euskara bermatzeaz gain, lanean euskaraz aritzea.

EUSKARARI LEHENTASUNA

Hizkuntzen erabileran, berdintasunerantz jo, baina euskarari lehentasuna emanda.

HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

Euskara zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza izateko irizpideak betetzen direla bermatu.

HERRITARRAK ETA ELKARTEAK

Herritarrek eta elkarteek Udalarekin euskaraz jardun dezaten bultzatu.

LAGUNTZA LANGILEEI

Euskara lan-hizkuntza izateko trebatze saioak, motibazio saioak eta baliabideak eskaini langileei.

EUSKARA LAN HIZKUNTZA "OHIKOA"

Euskarazko sortze lana areagotu Udalean eta sortzen dena kalitatezkoa izan dadin zaindu.



Arlo sozio-ekonomikoa

Euskararen erabilera handitu nahi da, merkataritzan eta ostalaritzan batez ere, baina baita enpresetan egiten diren praktiketan ere.



MERKATARITZA OSTALARITZA

Euskararen presentzia sustatu sektore hauetan, bai irudian baita ahozko komunikazioan ere.

Dendari eta ostalariekin euskara gehiago erabiltzeko ekintzak antolatu.

Bezeroak ere euskara erabiltzera motibatu.

DIRULAGUNTZAK

Establezimenduetan errotuluak eta irudi korporatiboa euskalduntzeko laguntzak eskaini.

LAN PRAKTIKAK

Lanbide Heziketako ikasleen lan praktikak euskaraz izateko laguntza eskaini enpresei.

EUSKARA PLANAK ENPRESETAN

Euskara Planak eta ekintzak sustatzeko baliabideak eskaini.

Kultura eta ondarea

Euskal kulturgintza sustatuko da. Elgoibarko euskarazko ondarea jaso eta gizarteratu nahi da.



Euskara
ala ezkara

Elgoibartik Euskal Herrira

ONDAREA GIZARTERATU

Euskarazko ondarea jaso, digitalizatu eta gizarteratu.

IRAKURZALETASUNA SORKUNTZA

Euskarazko irakurzaletasuna eta sorkuntza sustatu.

EUSKALKIA TOPONIMIA

Elgoibarko berbetia eta leku-izenak zaindu eta zabaldu.

KULTUR ESKAINNTZA

Euskarazko kultur eskaintza eta kontsumoa bultzatu: musika, antzerki, hitzaldi... Herriko kultur eragileekin elkarlana sustatu.

HEDABIDEAK

Euskarazko hedabideak lagundu, bereziki, tokikoa.

IKERKETAK

Euskararen inguruko ikerketak egin edo lagundu.

Sentsibilizazioa eta motibazioa

Euskararen zeharkakotasuna indartu nahi da euskara esparru guztietan txertatuz, eta horretarako, ezinbestekoa da sentsibilizazioa eta motibazioa lantzea.



EGITASMOAK HERRIAN

Herri mailako egitasmoak antolatu eta sustatu, hizkuntza ohituretan eta motibazioan eragiteko.

EUSKARAREN ERABILERAREN NEURKETAK

Herritarrak sentsibilizatzeko euskararen erabileraren neurketak egitea.

ELKARTEETAN

Elkarte eta entitateetan hizkuntza irizpideak ezartzen lagundu eta kontzientzia landu.

IKUSGARRITASUNA

Euskaraz eskaintzen dena ikusgarri eta erakargarri egiteko komunikazioa landu.



ELGOIBARKO UDALAREN EUSKARA SAILA

Aita Agirre plaza 3, 1. solairua

EUSKARA TEKNIKARIA: Kristina Zuatzubizkar

Tel. : 943 74 43 66 - Luzapena: 403

E-maila: euskara@elgoibar.eus

EUSKARA NORMALIZATZAILEA - TREBATZAILEA: Jose Anjel Aldai

Tel. : 943 74 43 66 - Luzapena: 405

E-maila: normalizazioa@elgoibar.eus

ITZULTZAILE - ZUZENTZAILEA: Nerea Lodoso

Tel. : 943 74 43 66 - Luzapena: 404

E-maila: itzulpenak@elgoibar.eus



ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO